**« Bezeroak kalitatezko lana egiten dugula nabari du Ea Asteira iritsi bezain laister»**

Ea Astei Landetxea duela bi urte zertifikaturiko establezimendu bat da. Jabeak, Mertxe Beguiristian, kalitatezko “Q” turistikoak merkatuan posizionamendu hobea izaten laguntzen diela argi dauka.

**Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?**
Arrazoi nagusia Ea-Astein lehendik ere kalitatearen arloan lan egiten ari ginela da, eta “Q” Turistikoaren ziurtagiriak sektorean bereiztu egiten gaitu.

**Ze abantaila ekarri dizkizue Q ziurtagiria edukitzeak?**
Zenbait elkarte turistikoen errekonozimendua areagotu egin da, baina bestalde, gure ustez, bezeroek orandik “Q” turistikoa ez dute ezagutzen, promozio falta izan baitu.

**Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa grietan? Eta azpiegitura kontuetan?**
Barne hobekuntzetako bat goraipatzekotan, orain prozesuak dokumentatuak direla adierazi dezakegu, eta ez dugu ahaztu behar antolakuntza, gestio eta azpiegitura alorretan beti azaltzen direla hobekuntzak.

**Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?**
Inkestak dira bezeroaren asebetetzearen inguruan informazio gehien eskaintzen diguten tresnak, bezeroak kalitatezko lana egiten dugula antzematen du etxera iristen denean.

**Zer esango zenieke turismo arloko profesionalei Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenerako animatu daitezen?**



Lana zerbitzuen kalitatean oinarrituz antolatzeko eta etengabeko hobekuntzak egitera bultatzen zaituen metodo bat dela.

**Beste enpresari batzuei kalitate sitema zertifikatuarekin lan egiteko gomendatuko zenieke?**
Noski baietz, modu sistematiko batean lan egiteak izen ona ematen baitu.

**Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erankudearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?**
Merkatuan posizionamendu hobea izaten laguntzen digu.

**¿Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?**
Ongi egindako atal ezberdinen batura da kalitatea.

**Kalitatearen kultura zure erakunean bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?**
Ea-Astein kalitatearen kultura lan metodo sistematiko izan dadin bultatzen.





**Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan Darin, ondorengo programa hauen bitartez:**

- **Jardunbide egokirako programak:** helburua enrpesarien “profesionalizazioa” eta jomuga-kontzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude.
- **Kalitate Turistikoaren Q-a programa:** Bezeroaren itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.
- **EFQM Bikaintasun eredua:** erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

**JARRI KALITATE TURSTIKOAREN Q ZIURTAGIRIA ZURE ESTABLEZIMENDUAN!**

**94 607 75 86**

**94 404 74 70**

**www.turismoa.euskadi.net**

**www.euskalit.net**